



Sistema kapitalista, auzitan: kritikak eta alternatibak kapitalismo berdeari

24 - 25 ABUZTUA

Civivox Kondestablea

■ Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak

💬 Gazteleraz

📖 Kredituak: 0.5

📋 50 plazas

€ Dohainik

🎓 11 ordu

📍 Kondestablearen Jauregia

📄 Bukatuta, Concluido

📅 2022ko abuztuaaren 22a arte

Ingurumenaren krisi globalaren testuinguruan, eta COVIDaren pandemiak eragindako osasun-krisiarekin batera, ikastaro honek helburu zehatz bat du: sistema kapitalistaren aurkako borrokaren arloan izaten ari diren errealitate eta lehiak komunitate

akademikoari eta herritar guztiei hurbiltzea.

Horretarako, zenbait hitzaldi proposatzen dira, adituek emanak, gai giltzarriak jorratuko dituztenak eta komunitate akademikoaren eta gizarte-mugimenduen arteko eztabaida eraikitzailea bideratuko dutenak. Auzi kontzeptual zenbait jorratuko ditugu, besteak beste elikadura-burujabetza eta ekonomia berdea, eta hizpide izanen ditugu planeta mugatu honek dituen muga biofisikoak eta zenbait arlotako (energia berriztagarrien, abeltzaintzaren, nekazaritzaren arloetako) makroproiektu lokalen eta nazioartekoen kontrako herritarren erresistentzia mugimenduak.

Modalitateak: presentziala eta online

NORENTZAT

NUPEko, Nafarroako beste unibertsitate batzuetako eta G-9 taldekoetako ikasleentzat. Esperientziaren Gelako ikasleentzat. Gobernuz kanpoko garapenerako erakundeetako eta gizarte-mugimenduetako kideentzat. Gaian interesa duten guztientzat.

HELBURUAK

Auzi kontzeptual zenbait jorratzea, besteak beste elikadura-burujabetza eta ekonomia berdea, bai eta aztertzea ere planeta mugatu honek dituen muga biofisikoak eta zenbait arlotako (energia berriztagarrien, abeltzaintzaren, nekazaritzaren arloetako) makroproiektu lokalen eta nazioartekoen kontrako herritarren erresistentzia mugimenduak.

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Alicia Chicharro Lázaro, NUPEko Zuzenbide Saileko irakaslea

ASTEAZKENA 24 ABUZTUA

10:00 Aurkezpena

Iruñeko Udaleko, NUPEko eta SODEPAZ erakundeko agintariak

10:15 - 11:45 Hasierako hitzaldia

Erronka: elikagaien produkzio jasangarria

Beatriz Soret Lafraya, NUPEko Agronomia, Bioteknologia eta Elikadura Saileko irakaslea

11:45 Atsedenaldia

12:00 - 13:30 Hitzaldia

Elikagaien gerra: nekazaritzako elikagaien ekoizpenerako zer eredu behar ditugu kolapso eta nahasmendu globaleko testuinguruan trantsizio ekologikoa egiteko?

Tom Kucharz, aholkulari politikoa, ikertzailea eta Ekologistak Martxan taldeko ekintzailea

17:00 Alternatibak eta kritikak ekonomia berdeari

Hitzaldia eta mahai-ingurua

Ester Montero, ARREA dinamizazio agroekologikorako elkarteko kidea

Gotzone Sestorain, Etxalde elikadura-burujabetzaren aldeko baserritarren elkarteko kidea

Nacho Casado, Iruñeko Extinction Rebellion elkarteko kidea

Moderatzailea: Kepa Torrijos, SODEPAZ elkarteko kidea

OSTEGUNA 25 ABUZTUA

10:15 - 11:45 Hitzaldia

Sistema kapitalistaren jasanezintasuna eta alternatibak kolapsoari

Asier Arias, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zientziaren Logikako eta Filosofiako irakaslea

11:45 Atsedenaldia

12:00 - 13:30 Hitzaldia

Planeta mugatu honen muga biofisikoak: egiazko aukera materialak trantsizio energetikoko planen aurrean

Abel Ortego Bielsa, MotorLand Aragón Garapenaren eta Ezagutzaren Arloko

zuzendari eta Zaragozako Unibertsitateko CIRCE Ikerketa Institutu Unibertsitario

Mistoko kidea

17:00 - 19:00 Mahai-ingurua

Herritarren erresistentzia energia berriztagarrien, abeltzaintzaren eta nekazaritzaren arloko makroproiektuen aurrean

Pablo Lorente Zapateria, Sustrai Erakuntza fundazioko kidea

Patxiku Irisarri, EHNE sindikatuko kidea

Julio Villanueva, ATH Gelditu Elkarlana plataformako kidea

Moderatzailea: Laura Marcelli, SODePAZ elkarteko kidea

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

BESTE ANTOLATZAILE BATZUK

SODePAZ



LAGUNTZAILEA

Iruñeko Udala